

# Irantzuko Monasterioa

*El de Irantzu es uno de los tres o cuatro monasterios navarros más bellos que nos ha legado la Edad Media. Lo conservamos ahora restaurado. Su historia humana y religiosa conoció momentos de prosperidad y decadencia, sufrió la dispersión de su Comunidad en la Exclaustración y la desintegración de su patrimonio monacal (1839). Los protagonistas de su historia fueron cistercienses, y ahora cuida de él una Comunidad teatina (1942...)*

Irantzuko monje zistertarrek kasik zortzi mendeko historia burutu zuten Abartzuzako monasterio honetan (1176-1839). Gerra-arriskua zela eta, bertako Artxiboa Lizarrako frantziskotarren komentuan gorde baina erre zenetik (1813), zailagoa da Irantzuko iragan hura ezagutzen.

## **Monasterio nafar-zistertarra (1176)**

Nafarroako Mendialdean ditugun monasterioen artekoa dugu Irantzuko hau ere, Orreaga eta Aralarko San Migelekin batera, eta herri eta jende euskaldunez inguratuta bizi izan da mendetan zehar.

Gainera, Irantzuko monasterio zistertarren historia zinez nafarra dugu, bere sortzean (1176) eta ondoko garapenean, Nafarroako beste batzuek kanpotik hainbat laguntza eta baldintza izan zituzten bitartean (Fiterok Gaztelatik; La Olivak Aragoitik; Orregak Europa osotik), Irantzu bere nafartasunean beregainagoa izan zen.

Halabeharrez, hasiera hartan, XII. mendeko beste monasterio zistertarretan bezalatsu, lehen monjeak Frantziatik deituta etorritakoak izan ziren Irantzun; baina ekinbidea Nafarroako bi seme leinargirena izan zen: Pedro eta Nikolas Artaxoakoena (Pariskoak ere deitu zitzairen, han ikasi zutelako, nonbait).

Pedro Artaxoakoa Iruñeko Gotzain izan zen (1167-1193) eta "eskolatua eta trebea, malgua eta adoretua, hogeita sei urteko bere Gotzainaldia Iruñeko diozesikoen artean gailur bat da" (Goñi). Monasterioko politika osoki eskutik eraman zuen. Beroni zor diogu, beraz, Irantzuko monasterioaren sortzea.

Nikolas Artaxoakoa († 1199) Gotzainaren anaia zen, bion arteko zeregina izan zen monasterio jaio berriari estreinako urratsetan lagundu eta bizia segurtatzea, lehen monjeak hautatu, Gotzain-babesa eman eta ondasunez hornituta. Nafarroako Erregea ere, Antso Jakituna (1150-1994), ez zen urruti ibili ahalgin honetan.

Dena den, ohartu arazi behar da, Irantzuk bazuela lehendik bere monasterio-historia-txoa, San Adrian kaperaren inguruan lehenagoko beneditarrek bizi izandakoa. Ez da historia ezagunegia; baina, aurrekari hori eta lekua aproposak zirela pentsaturik, aukera onaz baliatuta, Gotzainak anaiari dei egin zion, Orleans inguruko *Curia Dei* monasterioa utzi eta Irantzura etor zedin.

Monasterioari berehala jarri zitzaizkion bere oinarri ekonomikoak, ez baitzen gogo onik falta izan asmoaren inguruan. Laster Abartzuza eta Ibirikuko herriak bereak izan ziren, monje etorri berriek Erailgo herria beren



kontura erosteko modurik izan zuten, eta herri bereko San Migelen eliza eman zien Gotzainak.

Antso erregeak bere babespean hartu zuen Irantzuko monasterioa, eta ardi eta azien-dak erret larretara botatzeko eskubidea eman zien Irantzuko monjeei. Eta ezohikoagoa dena: edozein auzi zetorrela ere, Irantzuko monje baten hitzari epai-balioa aitortu zitzaion auzietarako. Ondoko urteetan hiru Aita Santuk berretsi zuten Elizari zegokion dena (1180-1187). Oinarriak jarrita zeuden, bada.

### **Etxeko bizimodu eta gorabeherak**

Erdi Aroko monasterio haietan bi alde nagusi zeuden bertako bizitza moldatu eta baldintzatuko zutenak: monasterio barruko bizilagunekikoa (monje-monjeak, monje korbetsoak, zerbitzari eta langileak) eta beraiek egin edo desegin zezaketena, eta bestea, Elizako nahiz gizarteko gertaera orokorretatik etor zitekeena.

Irantzuren lehen garapena garairik eder eta jasoenean loratu zen (1176-1350). Beraren ondasun-jaurerria ordukoa da: herriak, landetxeak, errotak, lur-sailak, elizak, errentak eta zergak ugari zetozen orduan monasteriora, eta abagune ona izan zen eraikin berri eta aberatsagoak jasotzeko.

Izurrite Beltzaren ondoren (1348-1350), garaiko krisi orokorra Irantzura ere heldu zen: 1350-1500. urteetako mende eta erdian galera handiak egon ziren Irantzuko ondarean, landetxeak eta elizak gorde zituen monasterioak, bai, baina gainerako ondasun gehienak, zergatik ez dakigula, galdu egin ziren.

Aro Modernoa, iraun eta moldaketa ba-

tzuen garaia izan zen, ingurutik zetozen eskakizun eliztar eta politikoei aurre eginez. Okerrena zena, Abadea izendatzeko eskumena kendu egin zitzaien bertako monjeei, eta 1557-1639.etan Irantzuko zazpi Abade izan ziren Erregek bere kontura jarritakoak.

Gogora dezagun, bestalde, Nafarroako hainbat monasteriotako Abadeek Erreinuko Gorteetan parte hartzeko eskubidea zutela, baita Irantzukoak ere; beraz, beren izanean, beste gabe pertsonaia politikoak zirela Irantzuko Abadeak.

Ordena barruko arazoei dagokiela, Irantzuk bere tirabirak izan zituen Gaztelako Koroarekin, beronek nahiago baitzuen Irantzuko Gaztelako Zistertar Kongregazioan ikusi, beste inon baino. Hala ere, 1616an Irantzuko monasterio hau Aragoi-Nafarroako Kongregazioan geratu zen.

Etxeko gobernura gatzozela, esan dezadan Aro Modernoko Abadeak ez zirela izan biziartekoak, lau urterako aukeratuak baizik. Unerik estuenak pasatu ondoren, Abadeak aukeratzeko eskubide mugatu bat behintzat gorde zuten Irantzun: monjeek hirukote hautagarri bat aurkezten zioten Erregeri, beronek hiruretako bat hauta zezan.

Beste tokitan bezala, kanpoko ezbeharrek jo zuten Irantzura ere. Konbentzioko Gerrak (1794-1795), Jose Bonaparteren erregealdiak, proiektu liberalek (1820, 1835), Lehen Gerrate Karlistak (1833-1839), Esklaustrazio eta Desamortizazioak (1839) zuzenean zigortu zituzten Irantzuko monasterioa eta monjeak.

**Joseba Intxausti**